

**SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, S.M.E., SA-REN (SELAE)
ETA PARTE-HARTZAILEAREN ARTEKO JOKO-KONTRATUA ("Joko Kontratua" edo
"Kontratua")**

A) ALDERDI KONTRATUGILEEN IDENTIFIKAZIOA

Joko Kontratu hau honako hauek sinatzen dute: alde batetik, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.M.E., SA sozietateak (aurrerantzean, "**SELAE**" edo "**Operadorea**"), helbidea Madrilgo (28020) Joan Maragall Poeta kaleko 53an duenak, IFZ: A86171964, eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoenak (28078 liburukia, 202 folioa, 8. atala, M- 505970 orria, 1. inskripzioa); eta, bestetik, "**Parte-hartzaileak**" edo "**Erabiltzaileak**", Espainian goitza duenak.

SELAE Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen bidez Espainian loteria-jokoak merkaturatzeko mugarik gabe izendatutako operadoreetako bat da, lehen xedapen gehigarriaren arabera. Bestalde, SELAE jokoaren hiru lizentzia orokorren (beste Joko, Apustu eta Lehiaketa batzuk) eta bi lizentzia bereziren (elkarren arteko kirol-apustuak eta elkarren arteko zaldi-apustuak) titularra da Espainian. Lizentzia horiek Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiaren ("**JAZN**") erregistroan zehazten dira, honako esteka honetan: <https://www.ordenacionjuego.es/es/op-SELAE>.

B) KONTRATUAREN HELBURUA ETA IZAERA

Kontratu honen helburua da Operadorearen eta Parte-hartzailearen arteko harreman juridikoa arautzea. Harreman hori sortzen da parte-hartzaileak parte hartzeagatik Operadoreak bere Plataformaren bidez (<https://www.loteriasyapuestas.es>) edo gailu mugikorrerako SELAEk jokorako dituen aplikazio ofizialen bidez eskainitako jokoetan, eta Erabiltzaile Erregistroak eta Joko Kontua Kontratuari lotuta geratzen dira. Kontratua jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak eta haren garapen-araudiak eraentzen dute.

Joko Kontratua atxikipen-kontratua da, eta Parte-hartzaileak berariaz onartzen badu formalizatuko da, hurrengo klausulan aurreikusitako baldintzetan.

C) PARTE-HARTZAILEAK KONTRATUA ONARTZEA

Kontratu hau berariaz onartu beharko du Parte-hartzaileak, SELAEk eskainitako jokoetan parte hartu ahal izateko. Kontratua onartzearekin, jokoaren arau partikularrak eta Plataforma Erabiltzeko Baldintzak berariaz onartzen dira.

Parte-hartzaileak Joko Kontratua (eta haren aldaketak) onartu beharko du Operadoreak horretarako prestatutako edozein bitarteko erabilita. Operadoreak Parte-hartzailearen eskura jarriko du Plataforman Joko Kontratuaren kopia, deskargatzeko moduan, eta berariaz onartzea eskatzen duten aldi bateko aldaketak ere bai.

D) DEFINIZIOAK

Kontratu honetan, ondorengo adierazpenak honela ulertuko dira:

- **Joko Kontua (komertzialki Lotobolsa bezala identifikatua):** Parte-hartzaileak irekitako kontua eta haren Erabiltzaile Erregistroari lotua. Bertan, jokoaren inguruko abonuen eta karguen mugimendu ekonomiko guztiak jasotzen dira: funtsen kargak eta deskargak, jokoko partaidetzen ordainketa eta sarien zati bat kobratzea. Kontuko saldoa Parte-hartzaileak une bakoitzean eskuragarri duen diru-zorroa da. Lotobolsako saldoak ez du ordainsaririk edo interesik sortuko Parte-hartzaileentzat.
- **SELAEren jokoren batean linean parte hartzea (“Partaidetza”):** SELAEk bere Plataforman merkaturatutako jokoren baten apustu baten edo batzuen zati bat eskuratzea, banaka edo plataforman erregistratutako beste Parte-hartzaile batzuekin batera. Erosketa hori SELAERI apustu bat zuzenean erosteagatik gertatzen da (erregistratutako jokalariei batek edo batzuek).
- **Baztertze-aldia:** SELAEk Parte-hartzaile baten inskripzioari uko egiten dion aldia da, haren kontratua SELAEk ezeztatu edo amaitu izateagatik, Kontratu honetan adierazitako arrazoiaren batengatik edo parte-hartzailearen erregistro-saiakeretan eragiketa desegokiren bat detektatu izanagatik.
- **Plataforma:** hardware eta software multzoa da, eta aukera ematen du, aurrez identifikatuta, SELAEren jokoen merkaturatzera sartzeko urruneko online kanal interaktiboetatik eta Parte-hartzailearen gailuetatik; hala nola, ordenagailu pertsonalak, mugikorrak eta Internet bidez konekta daitezkeen erabiltzaile-gailu guztiak. Sistema horrek onartzen ditu, besteak beste, Erabiltzaile Erregistroak eta Joko Kontuak kudeatzeko funtzionaltasunak; pronostikoak edo partaidetzak egitea, eskuratzea eta formalizatzea; nahitaezko zenbatekoak kobratzea; eratorritako sariak ordaintzea; eta horiek Parte-hartzaileari jakinaraztea.
- **Erabiltzaile-erregistroa:** Parte-hartzaileari Operadorearen joko-jardueretara sartzeko aukera ematen dion erregistro bakarra da; horren bitartez, Parte-hartzaileari buruzko informazioa kontsultatu ahal izateaz gain, joko-eragiketak egin daitezke.
- **Jokoen arau bereziak:** Plataformaren bidez eskainitako jokoen oinarritzko araudia eta arau bereziak: Parte-hartzaileak bere eskura ditu Plataforman.
- **Jokoen Sistema Nagusia:** SELAEren hardware eta software multzoa da, eta SELAEren jokoen eta zozketen kudeaketarekin zerikusia duten jarduera guztiak izapidetzen ditu, kanal presentzialetatik jasotako apustu guztiak kontsolidatzea barne, lineako urruneko terminal eta kanal interaktiboen bidez.

Definizioetan sartzen ez den termino ororen esanahia izango da Jokoa arautzen duen araudia, une bakoitzean Estatu-mailan indarrean dena nahiz Datu Pertsonalen araudian agertzen dena.

Joko Kontratu honen eta Jokoen arau partikularren artean adostasunik ez badago, azken horietan ezarritakoa nagusituko da.

E) ERABILTZAILEREAREN ERREGISTROA

E)i.- Parte-hartzailea erregistratzeko prozesua

E)i.(a). Erregistratzeko eskaera

Parte-hartzaileak Plataforman izena emateko/erregistratzeko eskaera egin behar du, ezarritako prozesuaren arabera.

Erabiltzailea Erregistratzeko eskaera modu oso pertsonalean egin behar da. Parte-hartzaile bakoitzak Erabiltzaile Erregistro bakarra eduki ahal izango du soilik.

Erregistratzeko prozesua kokapen fisiko batetik bakarrik egin daiteke Espainiako lurraldearen barruan. SELAEk geoblokeorako eskura dituen mekanismo teknologikoak erabiltzen ditu.

Erregistratzeko prozesuan, Parte-hartzaileak Plataformaren bidez aurkeztu beharko ditu honako hauetarako eskatutako identifikazio-dokumentuak eta informazioa beste formatu batzuetan (bideoa barne):

- Haren identifikazioa eta SELAEren jokoetan parte hartzeko debekurik edo mugarik ez izatea egiaztatzea.
- Parte-hartzaileak Espainian aitortutako egoitza fiskala lotzea.
- Transakzioen segurtasuna bermatzea.
- Joko Kontuaren funtzionamendu egokia bermatzea.
- SELAEk horrela ezartzen duenean, salmenta-puntu elkartu bat identifikatzea, SELAEk merkaturatzeko sare presentzialean dituen salmenta-puntuen artetik.

Edozein mugimendu ekonomiko egin aurretik, Parte-hartzaile berriek banku-kontu bat jakinarazi beharko dute, haien Erabiltzaile Erregistroarekin lotzeko. Izena emateko unean kontua jakinarazi ez duten parte-hartzaile guztientzat, elkarte hori nahitaez egiaztatu beharko da Parte-hartzaileak funtsen irteera-mugimenduak egin nahi dituen unean. Banku-kontua Espainian jarduteko baimena duen finantza-erakunde batean irekitakoa izango da, eta horren titularra Parte-hartzailea izango da. SELAEk eskubidea du banku-kontu bera Erabiltzailearen Erregistro bat baino gehiagorekin lotzeko aukera mugatzeko, baldin eta arau-arrazoiak edo iruzurrezko edo arriskuko jokabideak prebenitzeko arrazoiak direla-eta egokia bada.

E)j(b).- Jokoetan parte hartzeko debeku subjektiboak

Jokoa arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako hauek debekatuta izango dute erregistratzea eta jokoetan parte hartzea:

- a) Adingabeak eta legez edo ebazpen judizial bidez ezgaituak direnak, araudi zibilak ezarritakoaren arabera.
- b) Beren borondatez jokoa debekatzeko eskaera egin duten pertsonak edo ebazpen judizial irmoz debekatuta dutenak.
- c) Joko Operadorearen akziodunak, jabeak, partaideak edo titular esanguratsuak, haien zuzendaritzako langileak eta jokoen garapenean zuzenean inplikaturako langileak; baita haien ezkontideak edo haiekin bizi diren pertsonak, lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaideak, horiek kudeatzen edo ustiatzen dituzten jokoetan, kontuan izan gabe aurrekoetako edozeinek, zuzenean edo zeharka, hirugarren pertsona fisikoen edo juridikoen bidez parte hartzen duen.
- d) Apustua egiten den kirol-ekitaldian edo –jardueran zuzenean parte hartzen duten kirolariak, entrenatzaileak edo bestelako parte-hartzaileak.
- e) Apustua egiten den kirol-ekitaldian edo –jardueran parte hartzen duten edo antolatzen dituzten kirol-erakundeetako zuzendariak.

- f) Apustua egiten den kirol-ekitaldian edo –jardueran beren funtzioak betetzen dituzten epaileak edo arbitroak nahiz horien erabakien aurkako errekursoak ebazten dituzten pertsonak.
- g) JAZNko presidentea, kontseilariak eta zuzendariak; baita haien ezkontideak edo haiekin batera bizi direnak, lehen mailako aurrekoan eta ondorengoak, eta JAZNko langile guztiak, jokoaren arloan ikuskapen- eta kontrol-funtzioak dituztenak.
- h) Arau batek ezar dezakeen beste edozein pertsonak.

E)i.(c). Operadorearen egiaztatze lanak eta erregistroa. Identitatea egiaztatzea

Operadoreak denbora errealean kontrastatuko du, dituen erremintekin eta jokia arautzeko agintaritzak ezarritako prozeduraren eta egokitutako jotako beste batzuen arabera, Parte-hartzailearen identitatea, emandako informazioa bat datorrela egiaztatuz. Parte-hartzailea debeku subjektiboaren kausan ez dagoela egiaztatuko du, eta ez dela Baztertzeko-aldian edota SELAEk ukatzeko zehaztutako arrazoiren batean aurkitzen. Aurrekoa behar bezala gainditu ondoren, Parte-hartzailea inskribatuta geratuko da, eta Erabiltzailearen Erregistroa eta haren Joko Kontua aktibatuta geratuko dira; dena den, Parte-hartzailearen identitatea dokumentu bidez egiaztatu arte, hurrengo E)ii atalean araututako mugak aplikatu ahal izango dira. Parte-hartzaileak aurretik erregistro bat badu baja emandako Operadorearekin, erregistro berriak aurreko baldintzatzaile aktiboak izango ditu; adibidez, nork bere burua baztertzekoagatik eteteak, eragiketa desgokiak, eta abar.

Identitatea egiaztatu ezin bada, joko-araudian ezarritako prozedurak jarraituko dira, eta horrek Erabiltzailearen Erregistroa eta Jokoaren Kontua irekitzea ukatzea ekar dezake.

E)ii.- Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontura sartzeari. Datuak eta eragiketak eguneratzea

Behin izena emateko prozesua osatuta, Erabiltzailearen Erregistrora, Joko Kontura eta Plataformaren funtzionaltasunera sartzeko aukera gaituta geratzen da. Horren erabilera pertsonala eta besterenezina da, eta debekatuta dago Parte-hartzailea ez den beste pertsona bat Erabiltzailearen Erregistroetara sartzeari eta horiek erabiltzea, ezta haren baimenarekin ere. Parte-hartzaileak sartzeko, sarrera-kredentzial zuzenak eman beharko ditu, eta horiek Operadoreak egiaztatuko ditu bere sistemetan. Kredentzialak hautatzeko eta erabiltzeko baldintzak kontsulta ditzakezu web orriko [Erabilera-baldintzetan](#).

Parte-hartzaileak sartzeko kredentzialak baimenik gabe galdu dituela, lapurtu dizkiotela, iragazi direla edo erabili direla uste badu, berehala jakinarazi behar dio Operadoreari, Erabiltzailearen Erregistrorako sarrera kautelaz eten dezan.

Parte-hartzaileak behar bezala eguneratuta izan beharko du une oro Erabiltzailearen Erregistroa, eta SELAEk eskura jartzen dizkion tresnen bidez aldatu beharko du aldaketak izan ahal izan dituen informazioa. Parte-hartzaileak behar bezala eguneratuta eduki beharko du lotutako banku-kontua.

Jokoaren Operadoreak ez du aldatuko Erabiltzailearen Erregistroa, Plataformak behar bezala funtzionatzeko behar-beharrezkoak diren kudeaketa-eragiketak edo araudiaren arabera onargarriak diren eta Parte-hartzaileak eskatu dituen aldaketak egiteko izan ezik. Operadoreak eguneratuta izango du Joko Kontua, egiten diren eragiketak islatzeko.

E)iii.- Identitatea agiri bidez egiaztatzea

Indarrean den araudiaren arabera, SELAEk agiri bidez egiaztatu behar du Parte-hartzailearen identitatea, karga guztiak batuta (2019/03/28tik aurrera) 150 €-ko zenbatekoa gainditzen duen

kopurua kargatu edo sari bat kendu baino lehen, horren zenbatekoa edozein dela ere. Gainera, SELAEk eskatu ahal izango du Parte-hartzaileen identitatea eta bizi-proba dokumentu bidez egiaztatzea beste egoera batzuetan, arriskuak prebenitzeko, iruzurra prebenitzeko edo joko arduratsurako politikek hala zehazten badute.

Horretarako, Parte-hartzaileak gainditu egin beharko du SELAEk bere web gunean zabaldutako egiaztapen dokumentalaren prozesua edo IOS eta Androiderako App ofizialaren bidez. Agiri bidez egiaztatzeko prozesuan zehar, SELAEk argazkiak eskatuko dizkio Parte-hartzaileari. Argazkiek behar besteko argitasuna eta ikuspegia izan beharko dituzte, eta nortasun-agirikoak edo Parte-hartzailearen aurpegikoak izango dira. Halaber, azken horren bideoak edo bestelako bizi-probak eskatu ahal izango ditu, Parte-hartzailea egiaztatzen ari den bidearen arabera. Prozesua erabat automatikoa izan daiteke, banan-banan egiaztatzeko tratamendu biometriko baten bidez, datu pertsonalak tratatzeko ezaugarri bereziko tratamendurik gabe, edo, zenbait kasutan, gizakiak ere esku hartu ahal izango du.

Atal honetako lehen paragrafoan adierazitako kasuei dagokienean, Parte-hartzailearen identitatea agiri bidez egiaztatzen ez bada, Operadoreak Joko Kontuaren eta Erabiltzailearen Erregistroaren erabilera mugatu, eten edo ezeztatu ahal izango du, dagokionaren arabera, hurrengo E) v atalean aurreikusitakoari jarraiki.

E)iv.- Parte-hartzailearen jardueraren kategorizazioa

SELAEk une bakoitzean joko-araudia betetzen dela ziurtatzeko beharrezko metodo algoritmikoak erabiliko ditu. Horren barruan sar daitezke Erabiltzailearen Erregistroa eta Erabiltzailearen Kontua aztertzeke mekanismoak, Parte-hartzailearen joko-jokabideak eta/edo kontsumo-ereduak kategorizatzeke, joko arduratsuaren edo joko seguruaren arrazioen arabera, edo ezarritako beste edozein, tartean, balizko arrisku-portaera, joko intentsiboa edo adin-talde kalteberak detektatzea, dagokion epean eredu-talde batean profilatzea eragiteko aukerarekin.

Parte-hartzailea eredu-talde batean sartuta geratzen bada aldi baterako, araudiak ezarritako jakinarazpen guztiak jasoko ditu, eta, dagokion jakinarazpena egin ondoren, haren operatiba modulatuta geratuko da, araudiak ezartzen duenaren arabera; kasu horretan, adibidez, Lotobolsako kargak, ordainbide jakin batzuen erabilera edo joko-erosketak mugatu ahal izango ditu. Era berean, Operadoreak Parte-hartzaileari eskatu ahal izango dio araudiak une bakoitzean eskatutako egiaztapenak egiteko beharrezkoa den informazio guztia; esate baterako, Parte-hartzaileak ordaintzeko erabili nahi dituen bideen titulartasuna egiaztatzea.

E)v.- Plataformarako, Erabiltzailearen Erregistroarako eta/edo Joko Kontuarentako sarbidea murriztea, etetea eta ezabatzea:

E)v.(i). Funtzionalitateen, Erabiltzailearen Erregistroaren edo Joko Kontuaren gaineko murrizketak

SELAEk Plataformara sartzen utziko die itxuraz fisikoki Espainian aurkitzen diren Parte-hartzaileei; edonola ere, geoblokeatzeko mekanismoak aplikatuko ditu, teknologiak eskaintzen dituen gaitasunen barruan. Mekanismo horiek eragina izan dezakete Espainiako lurraldean ez daudenentzat izena emateko, produktua erosteko, harpidetzak sortzeko eta Lotobolsan funtsak sartzeko funtzionalitateetan. Halaber, Plataformara sartzeko aukera erabat desgaitu ahal izango da agintariek horrela eskatu duten lurraldeetatik edo errekerimendu hori argi eta garbi ezagutzen den lurraldeetatik.

Behar bezala formalizatutako harpidetza aktiboek ez dute Parte-hartzailearen kokapen fisikoaren eraginik izango Lotobolsan funts nahiko dauden bitartean.

Inola ere ez da ulertuko SELAEk Espainiatik kanpo Internet bidez jokia eskaintzen edo merkaturatzen duenik.

Horrez gain, Parte-hartzaileei aplikatuko zaizkie aplikatzeko araudiak eskatutako murrizketak edo mugak; hala nola, gastuaren, gordailututako funtsen karga edo deskargaren, sarbide-denboraren edo zenbait ordainketa-mekanismoren gaineko murrizketak.

E)v.(ii). Joko Kontua eta Erabiltzailearen Erregistroa etetea

Parte-hartzailearen sarbidea eta Joko Kontuaren eta/edo Erabiltzailearen Erregistroaren operatiba guztiz edo partzialki etengo ditu Operadoreak honako arrazoi hauetakoren bat medio, joko-araudian aurreikusitako epe eta mugekin:

- Debeku subjektiboa: Jokoa arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean aurreikusitako debeku subjektiboen kausaren batean Parte-hartzailea sartuta dagoela Operadoreari adierazten zaionean; adibidez, Jokatzeko Debekuen Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea.
- Parte-hartzailearen borondatea (Nork bere burua baztertzea): Parte-hartzaileak Joko Konturako sarbidea mugatzeko eskubidea erabiltzen duenean (nork bere burua baztertzea), aurrez ezarritako aukeren artean Parte-hartzaileak erabakitako aldian; etenaldi hori ezeztatzina izango da epe horrek irauten duen bitartean. Nork bere burua baztertze hori SELAEn parte hartzeari mugatuta dago, norbere burua debekatzeko eskubidea ez bezala, non edozein operadorearen joko-jardueretan parte hartzeaz baztertuta egongo den, Jokora Sartzeko Debekuen Erregistro Orokorrean inskribatuta geratuko baita.
- Parte-hartzailearen borondatea (baja emateko eskaera edo datuak bertan behera uzteko eskubidea gauzatzea): Parte-hartzaileak behin betiko baja eskatzen badu edo Datu Pertsonalak bertan behera uzteko eskubidea erabiltzen badu datuak babesteko araudiaren arabera, betiere eskubide horiek erabil badaitezke jarduneko apusturik ez izateagatik edo kontratua suntsiaraztea eragozten duen beste arrazoiren batengatik, sarbidea eten egingo da, Parte-hartzaileak eskatutakoa betetzeko beharrezkoak diren eragiketak egiten diren bitartean.
- Jarduerarik eza: Parte-hartzaileak Plataforman gutxienez bi urtez jarraian ez jarduteagatik. Kasu horretan, Parte-hartzaileak Erabiltzailearen Erregistroa eta dagokion Joko Kontua berraktibatu ahal izango ditu, Plataforman autentifikatuta, betiere erregistroa eten eta handik lau urteko epean egiten badu. Eteten denetik lau urte igaro ondoren, Operadoreak Erabiltzailearen Erregistro ez-aktiboa baliogabetu eta Joko Kontratua indargabetuko du.
- Arau-hausteen, eskubide-gehiegikeriaren edo joko arduratsu/seguruarekin bateraezinak diren jokabideen aztarnak: Parte-hartzaileak honela jokatu izanaren arrazoizko zantzuak baldin baditu Operadoreak: (i) portaera kolusorioa, iruzurrezkoa, susmagarria edo desegokia izatea, edo (ii) SELAEntzako arrisku ekonomikoa, korporatiboa, segurtasunekoa edo beste edozein motatakoa izatea (adibidez, Lotobolsaren saldoa berriz kargatzeko eta jasotzeko eragiketak egin izana eta horiek SELAEn jokoen erosketarekin zerikusirik ez izatea itxura batean) eta/edo Parte-hartzailearentzat berarentzat, edo (iii) oro har, kontratuko edo arauetako ez-betetzereen bat edo eskubide-gehiegikeriaren bat egondako jarduerak egitea; adibidez, SELAEk eskura jarritako bitartekoak berezko ez dituen helburuetarako erabiltzea, hots, jokoetan parte hartzea; edo (iv) jokoaren edo joko seguruaren jokabide arduratsuekin bateraezinak diren portaera arriskutsuak izatea, SELAEk argitaratutako joko arduratsuaren eredu eta politiken edo aplikatzeko araudian ezarritakoen arabera.
- Egiaztapena eta egiaztapen dokumentala faltatzea edo identitatea ordeztzea: Honako kasu hauetan: (i) ez betetzea erabiltzailearen identitatea egiaztatzeko eskatutako egiaztapen guztiak, une bakoitzean indarrean den araudiarekin eta Joko Kontratu honekin bat datozenak, (ii) Erabiltzailearen Erregistroan beharrezko datuak faltatzea (adibidez, eskualde fiskala), (iii) Operadoreak arrazoizko zantzuak izatea Erabiltzailearen Erregistroko datuen zehaztasunik ezaren inguruan, datu eguneratu

gabeak barne, edo Parte-hartzailearen balizko heriotza, edo (iv) Operadoreak zentzuzko aztarnak izatea Parte-hartzaileari bere borondatearen kontra nortasun-datuak edo pasahitzak lapurtu izanaren inguruan. Hori guztia harik eta Parte-hartzailearen identitatea behar bezala egiaztatu eta Erabiltzailearen Erregistroa osorik osatu arte.

- Kapital-zuritzea prebenitzeko neurriak aplikatzea: besteak beste (i) finantza-zigorrak eta kontra-neurriak dituen parte-hartzailea, finantza-zigorrak eta kontra-neurrien mende pertsonen zerrendan egoteagatik, aipatu zerrendetan dauden bitartean; edo (ii) kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudian aurreikusitako diligentzia-neurriak egiaztatze prozesuan dagoen parte-hartzailea, balorazio- eta egiaztapen-prozesuak behar bezala betetzen diren bitartean.
- Enbargoa: Parte-hartzailearen kreditu-eskubideak bahitzen diren kasuan, agintaritza batek adostuta eta SELAeri behar bezala jakinarazita, behar izanez gero, erabat bete arte edo enbargoa kendu arte.
- Bestelakoak: Operadorearen iritziz, etorkizunean aldi baterako etetea beharrezkoa edo komenigarria egingo luketen beste egoera batzuk.

Etenaldia jasan duen Parte-hartzaileari egoera horren eta etetearen ondorio nagusien berri emango dio Operadoreak.

Eteteak irauten duen bitartean, Parte-hartzaileak mugatuta izan ditzake Erabiltzailearen Erregistroaren, Joko Kontuaren eta, oro har, Plataformaren funtzionalitateak, indarrean den legeriaren arabera.

Operadoreak etenaldia eragin zuten arrazoiak ezabatu direla egiaztatu ondoren, etenaldia kenduko du. Salbuespen gisa, etenaldiaren arrazoia Parte-hartzailea Jokoa Sartzeko Debekuen Erregistro Orokorrean eta/edo Joko Operadoreari Lotutako Pertsonen Erregistroan inskribatuta egotea izan bada, Operadoreak erabaki ahal izango du Joko Kontuaren etenaldia kentzea eta jokoetan parte hartzea baimentzea, betiere Parte-hartzaileak alde aurretik hala eskatzen badu (adibidez, indarrean den Joko Kontratua berriro onartuz).

E)v.(iii). Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua bertan behera uztea

Parte-hartzaileak baja eman ahal izango du, eta, ondorioz, haren Erabiltzaile Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetu egingo dira, honako arrazoi hauetakoren batengatik:

- a) Parte-hartzailearen borondatea (baja-eskaera edo datuak deuseztatze eskubidea gauzatzea): baja eskatu duen Parte-hartzailearen behin betiko baja emateko edo Datu Pertsonaletara sartzeko desgaitzeko (baliogabetze-eskubidea gauzatzeari dagokiona) beharrezko eragiketak egin ondoren.
- b) Behin betiko jarduerarik eza: Erabiltzailearen Erregistroa eten zenetik lau urtez segidan jarduerarik ez egitea.
- c) Araudiak ez betetzea edo eskubide-gehiegikeria edo joko arduratsu/seguruarekin jokabide bateraezinak burutzea: Operadoreak hala eskatuta, behar adinako irizpide-elementuak izanez gero, behin egitateak egiaztatuta, Joko Kontua eteteko aurreko atalean aurreikusitako gorabeherak gertatu direla uste izateko (araudia ez betetzearen, eskubide-gehiegikeriaren edo joko arduratsu/seguruarekin bateragarriak ez diren jokabideak burutu izanaren zantzuak), Operadoreak bertan behera utzi ahal izango du Erabiltzailearen Erregistroa eta/edo Jokoa Kontua.
- d) Heriotza eta beste gorabehera subjektibo batzuk: Parte-hartzailearen heriotza

egiaztatzen bada edo Parte-hartzailea izateko ezgaitasuna dakarten beste gorabehera subjektibo behin betiko batzuk gertatzen direla egiaztatzen bada (adibidez, Espainian egoitza ez izatea edo Espainian jarduteko baimendutako finantza-erakunde batean kontu korrante baliodunik irekita ez izatea, hala egin behar duenean).

- e) Beste ez-betetze batzuk: Joko Kontratu honetako aurreikuspenak betetzen ez badira (esate baterako, behar bezalako ardurako neurriak egiaztatzeko laguntzarik ez ematea edo identitatea egiaztatzeko eragiketak oztopatzea, Espainian egoitza ez izatea edo Espainian jarduteko baimendutako finantza-erakunde batean kontu korrante baliodunik irekita ez izatea, hala egin behar duenean), eta, oro har, Parte-hartzaileak Kontratu honen pean dituen betebeharrak larriki edo behin eta berriz betetzen ez dituela egiaztatzen bada, Operadoreak Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetu ahal izango ditu.

Parte-hartzaileak hala eskatuta, ezin izango dira Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetu edota Datu Pertsonalak baliogabetzeko eskubidea erabili, Parte-hartzaileak apustu aktiboak eta/edo saldoa baditu haren Joko Kontuan. Kasu horretan, baja emateko eskatzen duten Parte-hartzaileak parte hartzen duen zozketa edo ekitaldia egin arte eta legozkiokeen sariak kobratu arte itxaron beharko du, baja gauzatu dadin. Baliogabetu aurretik (eta jarraian ezartzen diren salbuespen eta guzti), Parte-hartzaileak SELAeri eskatu ahal izango dio Joko Kontuan duen saldoa Espainian jarduteko baimendutako finantza-erakunde batean duen banku-kontura deskargatzea, edota saldo horri esanbidez eta atzera egin gabe uko egin ahal izango dio.

Sariak kobratzea edo Joko Kontuko zenbatekoak deskargatzea ukatzeko eskubidea izango du SELAEk, bidezkoa bada Kontratua amaitzeko arrazoien arabera (hautsitako arauak eta arau horietan xedatzen dena, agintarien errekerimenduak eta eskubide-abusuak eta kontratuko fede txarra izan daitezkeen jokabideen ondorioak).

Erabiltzailearen Erregistroa eta dagokion Joko Kontua baliogabetu ondoren, Parte-hartzaileak ezin izango du horietan sartu eta eragiketak egin, eta ez ditu SELAeren komunikazioak jasoko. Erabiltzailearen Erregistroa baliogabetzearekin, Joko Kontratua iraungiko da.

E)vi.- Operadoreak Parte-hartzaileari egingo dizkion oinarritzko komunikazioak

Plataformaren bidez parte hartuz gero, emandako oinarritzko zerbitzuaren zati integral gisa, Parte-hartzaileari komunikazioak bidaltzen zaizkio, haren Erabiltzaile Erregistroari, Joko Kontuari, taldeko jokoari eta indarrean dagoen araudiaren arabera izan dezakeen kategorizazioari buruzko informazio hobea izan dezan.

Jakinarazpenetan igorriko dira araudiak Parte-hartzaileari bidaltzea eskatzen dituen informazioak nahiz ondorengo hauek: zerbitzuaren inguruko informazio-abusuak, kontratu-aldaketen gaineko abisuak, segurtasun-abisuak, joko arduratsua, eta Parte-hartzaileei lege-betebeharrarengatik edo joko seguruarengatik bidaltzen zaizkien inkestak edo bestelako jarduerak egiteko gonbidapenak, estatistika-tratamendurako datuak biltzeko helburuarekin.

Komunikazio horiek hainbat kanal bidez bidali ahal izango dira; hala nola, SMS, posta elektronikoa edo Operadoreak ezar ditzakeen beste modalitate batzuk (adibidez, *push* jakinarazpenak app edo nabigatzailearen bidez).

Jakinarazpen horiek direla-eta, Parte-hartzaileak ez du inolako kargu edo betebeharririk gehigarri izango.

F) PARTE-HARTZAILEAK EGIN DITZAKEEN ERAGIKETAK. JOKOETAN PARTE HARTZEA ETA SARIAK ORDAINTZEA

F)i.- Plataforman eta Joko Kontuan baimendutako eragiketak

Erabiltzailearen Erregistro bakoitzak Joko Kontu bakarra izango du.

Joko Kontuak ez du interesik sortzen, eta, bertan, joko-jarduerekin lotutako transakzio ekonomikoak islatzen dira, Operadoreak parte hartzeko eskainitako modalitate ezberdinek sortutakoak barne, nahiz eskain daitezkeen kostu-bidezko zerbitzuak.

Parte-hartzaileak, bere ardurapean, beharrezko informazioa eman beharko du Operadorearekin transakzio ekonomikoak egitea baimentzeko.

Plataformak eta Joko Kontuak honako hauek egiteko aukera ematen diote Parte-hartzaileari: baldintzak betetzea, informazioa kontsultatzeko eragiketak egitea Kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera, joko-eragiketak egitea arau berezien arabera eta funtsen mugimenduak egitea (funtsak sartzea eta ateratzea, Kontratu honetan eta joko-araudian aurreikusitako muga barnean; Plataforman eskainitako jokoetan Parte-hartzea ordaintzea; aldizkako sarien ordainketa eskatzea).

F)ii.- Plataforman eta Joko Kontuan egin ezin diren eragiketak

Plataformak ez du uzten banakako Parte-hartzailearen edo talde bateko kideren baten Joko Kontuan saldo hartzekoduna edo nahikoa ez dena ematen duen eragiketarik egiten.

Parte-hartzaileak ez du baimenik izango eragiketa hauek egiteko:

- Jokoetan parte-hartzearekin zerikusirik ez duten helburuak dituzten jarduerak (eskubide-abusua) eta/edo Joko Kontua iruzurrez erabiltzearen zantzuak ematen dituzten jarduerak.
- Operadoreari kalte ekonomiko bidegabeak edo erreputazio-kalteak eragin diezazkiokeenak.
- Aplikatzeko edozein araudik edo SELAEren politikek (Joko Segurua eta/edo jokoan iruzurra prebenitzea) debekatutako eragiketak.

F)iii.- Saldoaren, gordailuen, jokatu beharreko zenbatekoen eta deskargen mugak

SELAEK joko arduratsu eta seguruarekiko duen konpromisoaren aldetik, jarraian deskribatzen diren zenbait muga eta aukera jarri ditu Parte-hartzailearentzat:

- Saldoaren eta gordailuen mugak

Operadoreak muga ekonomikoak ezarrita ditu Lotobolsaren saldorako eta Parte-hartzaileek egunero, astero eta hilero egin ditzaketen gordailuetarako. Horiek esteka honetan kontsulta daitezke: <https://www.loteriasypuestas.es/es/centro-de-ayuda/lotobolsa/opciones-de-lotobolsa>

Parte-hartzaileak mugak ezarri ahal izango dizkie bere borondatez bere saldo eta gordailuei, orokorrean ezarritakoak baino zenbateko txikiagoak badira. Parte-hartzaile bakoitzak berariaz eta banaka egin ahal izango du eskaera. Gainera, Parte-hartzaileak zehaztu ahal izango du zein zenbatekotik aurrera sariak ordainduko zaizkion banku-kontuan zuzenean eta ez Lotobolsan.

Parte-hartzaileak sariak ordaintzeko baliozko banku-konturik eman ez badu, dirua Lotobolsan ordainduko zaio, Erabiltzaileak ezarritako muga edozein dela ere, ordainketa beste modu batean egiteko aukerarik ez izateagatik. Kasu honetan, Lotobolsako saldoak ezarritako muga gainditzen badu, Parte-hartzaileari jakinaraziko zaio bere Lotobolsa berehala deskargatu behar duela, eta deskarga hori egin arte ezin izango du inolako eragiketarik egin.

SELAEk, joko arduratsu eta seguruarekiko konpromisoan, lehen paragrafoan adierazitako gordailuaren muga handitzeko edo kentzeko eskaerak inola ere ez onartzea erabaki du.

Gordailuak kargatzeko dauden ordainketa-bideak murriztu ahal izango ditu Operadoreak, parte-hartzaileen talde kaltebera edo arriskuan dauden talde jakin batzuentzat, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Jokatzeko zenbatekoetarako muga

SELAEk joko arduratsuaren alde duen konpromisoaren zati gisa, Parte-hartzaileak bere gehieneko muga pertsonala ezarri ahal izango du Plataforman astero gastatzeko, betiere aplikatzeko araudiak une bakoitzean ezar dezakeen muga baino txikiagoa bada, eta Lotobolsan eskuragarri dagoen saldoaren muga gehigarriarekin. Parte-hartzailea jokatzeko saiatzen den bakoitzean, Plataformak azken astean (astelehenetik igandera) egindako apustuen zenbatekoak ez duela balio hori gainditzeko kontrolatuko du.

- Deskargen muga

Segurtasun eta joko arduratsuaren neurri gisa, SELAEk muga hauek ezarrita ditu Lotobolsan saldoa deskargatzeko: 24 ordutan gehienez egin daitekeen deskarga-kopurua: 1; astean gehienez egin daitekeen deskarga-kopurua: 2.

Lotobolsa Parte-hartzaileak eskatuta deskargatzen da edota automatikoki, sariak lortzeagatik saldoaren muga gainditzeko duenean eta Parte-hartzaileak kontu korronte baten berri behar bezala eman badu. Funtsak Parte-hartzaileak adierazitako banku-kontura transferitzen dira; kontu horrek Kontratuan adierazitako baldintzak bete behar ditu.

F)iv.- Jokoetan parte hartzea eta Parte-hartzearen ordainketa

Baldintza guztiak beteta, Parte-hartzaileak jokoetan parte hartu ahal izango du Plataformaren bidez, arauak erregulatzen dituzten eta merkaturatzeko modu horrek eskuragarri dituen motak eta modalitateak erabilita. Apustuak edo pronostikoak egiteko modua Internet bidez edo aplikazio mugikorren bidez parte hartzeko dagokien arauetan ezarritakoa izango da.

Plataformak apustuak edo pronostikoak automatikoki egiteko aukera emango du edo txartel baten irudi birtual batean markatuta, edo, hala badagokio, beste edozein aukera erabilita. Araututa dauden jokoetan dirua itzultzeko, Plataformak zenbaki bat ausaz emango dio frogagiri birtual bakoitzari, eta horren berri emango zaio Parte-hartzaileari apustua gauzatzen duen unean.

Parte-hartzea baliozkoa izan dadin, behar bezala erregistratuta eta baliogabetu gabe egon behar du Jokoen Sistema Nagusian, denboran eta forman. Jokoetan parte hartzea, bakarka edo taldean, pertsonala da, eta ezin zaie hirugarrenei transferitu. Ondorioz, SELAEk, hala badagokio, lortutako sariak soilik Parte-hartzaileari edo Parte-hartzaileei ordainduko dizkie, kasu horretan joko-modalitatea taldekoa izan bada, aldez aurretik erregistratuta badaude eta apustuak egin badituzte. Ezin dira sariak partekatu parte hartu ez zuenarekin.

Jokoetan Parte hartzeagatik ordaintzeko nahiz Joko Kontuan dirua sartzeko, SELAEk une bakoitzean ahalbidetzen dituen ordainketa-moduak erabiliko dira; horien inguruan behar adina informazio emango da Plataforman. Operadoreak ez dio kosturik edo komisiorik kargatuko Parte-hartzaileari.

Partaidetza aurrez formalizatuta, Plataformak ordainketarako funts-hornidura bat lortuko du. Lotobolsan funts nahikorik badago, eta muga gehigarriak aplikatu behar ez bada, ordainketa une horretan dagoen saldoaren aurka egingo da, eta parte hartzen duen Parte-hartzaileari eragiketa berrestea eskatuko zaio. Ordainketari aurre egiteko beharrezkoa dena baino saldo

txikiagoa badago, Parte-hartzaileak (edo Parte-hartzaileek, apustua taldean egin bada) kargatu egin beharko du berrespen hori eskatu aurretik. Eragiketaren gehieneko zenbatekoa aurreko F) iii atalean aurreikusitakoaren arabera mugatuko da.

Behin ordainketa baieztatu eta onartuta, Parte-hartzea Jokoen Sisteman Nagusira bidaliko da, baliozta dezan. Jokoen Sistema Nagusiak onartzeko epearen barruan dagoen egiaztatuko du. Ez badago, Parte-hartzaileari jakinaraziko zaio, eta eragiketari uko egingo zaio.

Jokoa eteteagatik edo hura garatzea eragozten duen beste edozein arrazoirengatik Operadoreak Parte-hartzaileari ordaindutako zenbatekoak itzuli behar badizkio, itzulketa Operadoreak joko bakoitzaren arau berezietan ezarritako moduan egingo da.

Eragiketak erregistratu eta gero, Parte-hartzaileari laburpen bat aurkeztuko zaio apustu, jokaldi edo pronostiko bakoitzaren edukiarekin, informazio horretan onartutakoak eta baztertutakoak bereiziz, halakorik izanez gero.

Plataformak emandako agiriak informazio-izaera bakarrik du. Ez du inola ere balioko sariak kobratzeko, eta ezingo da ezta ere erabili Eragiketa ordaindu izanaren frogagiri moduan. Ondorio horietarako, baliozko froga bakarra Jokoen Sistema Nagusian agertzen den erregistroa da, eta horrek segurtasun-neurri egokiak ditu.

Jokoan edozein Parte-hartze formalizatu aurretik, Parte-hartzaileak ziurtatu beharko du jokoaren, zozketaren edo gertaeraren datuak behar bezala hautatu dituela. Jokoen konfigurazioa bera eta lotutako segurtasun-neurriak direla-eta, behin SELA Eren joko batean Parte-hartzea formalizatuta, hori irmoa izango da, eta ezingo da Parte-hartze hori baliogabetu, ezeztatu edo atzera egin.

Jokoaren Parte-hartzearen eduki zehatzari buruzko desadostasunak egonez gero (izan apustua, jokaldia edota pronostikoa), Joko Kontratu honetako bi alderdiek behin betiko moduan onartuko dute Operadorearen barne kontrol sistemako eragiketen eta transakzioen erregistroa. Horrek ez du esan nahi Parte-hartzaileak legezko eta kontratuzko auziak ebazteko mekanismoetako batera jotzeko ahalmenik ez duenik, Operadorearen erabakien aurrean bere eskubideak eta interes legitimoak babesteko.

F)v.- Sarien ordainketa

Operadoreak sariak ordainduko ditu zuzenean edota hirugarren erakunde kolaboratzaileen zerbitzuen prestazioen bidez, jokoaren arau berezietan ezarritako prozeduraren eta ordainbideen bidez. Jokoen arau partikularren arabera, sariak kobratzeko eskubidea Parte-hartze bakoitzaren azken ekitaldi edo zozketaren datatik 3 hilabetera iraungitzen da. Parte-hartzaileak sariak kobratzearekin zerikusia duen edozein ekintza epe horren barruan egin behar da.

2.000 eurotik beherako sariak zuzenean ordainduko dira Parte-hartzailearen Lotobolsan. Parte-hartzaileak baliozko kontu korrontea eman badu, Lotobolsan gordailu-muga gainditzen duten sariak, F) iii atalean aipatzen direnak (Saldoaren eta gordailuaren mugak), edo sariak ordaintzeko eratutako beste muga txikiagoa gainditzen dutenak, eta 2.000 eurora bitarte, berehala transferituko dira Parte-hartzaileak izendatutako kontura. Parte-hartzaileak baliozko kontu korronterik esleituta ez badu, ezingo du Lotobolsa kargatu edo apusturik egin, harik eta banku-kontu bat erregistratu eta deskarga-eragiketak egin arte, Lotobolsaren saldoa lehen adierazitako muga baino txikiagoa izan dadin.

2.000 euroko edo hortik gorako sariak Parte-hartzaileak zenbateko hori baino handiagoko sari bakoitzerako zehaztutako banku-kontuan ordainduko dira, jokoen arau berezietan bestelakorik adierazten denean izan ezik. Parte-hartzaileak egiaztatu beharko du, sariak kobratzeko eskubidea iraungitzeko epearen barruan, sari jakin bakoitza zein banku-kontutan sartu nahi duen, baldin eta sari hori lehen adierazitako zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada,

kapitalen zuritzea prebenitzeko, jokoan iruzurra prebenitzeko nahiz iruzur teknologikoak prebenitzeko arrazoiak direla-eta. SELAEk ez du saririk ordainduko Parte-hartzaileek egiaztatu gabeko kontuetan. Operadoreak Parte-hartzailearen eskura mantenduko du saria, dirua sartzeko bere titulartasuneko banku-kontua jakinarazi arte edo kobratzeko eskubidea iraungi arte. Parte-hartzaileek edozein unetan egiaztatu ahal izango dute saria sartzea nahi duten kontua, saria irabazi eta eskubidea iraungi bitartean.

Jokoen arau partikularretan ordainketa bakarra ez den formatuan ordaintzeko sariak aurreikusten badira, ordainketak Plataformaren automatismotik kanpo egingo dira, arau berezi horiek adierazitako moduan eta baldintzetan.

Kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeagatik, eremu guztietan iruzur-jokabideak saihesteagatik eta eragiketen trazabilitatearengatik, ez dira onartuko sariak ordaintzeko beste modu edo bitarteko batzuk, Espainian jarduteko baimendutako finantza-erakundeetako banku-kontuak ez badira, Parte-hartzailearen titulartasunekoak. SELAEk ez du inolako erantzukizunik izango Parte-hartzaileak adierazitako kontu-zenbakira transferentzia egitean.

Kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudian xedatutakoa betetzeko nahiz bidegabeko, iruzurrezko edo arriskuzko jokabideak eta, oro har, arau-haustea edo eskubide-abusua dakarten jarduerak saihesteko helburuarekin, Operadoreak informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izango du Parte-hartzaileak saria ordaintzeko emandako banku-kontuaren titulartasuna dokumentu bidez egiaztatzeko. Hala ere, Operadoreak sarien ordainketa atxikitzeko edo horiek eskuratzea galarazteko ahalmena izango du, Kontratu honetako E) atalean aurreikusitakoaren arabera bidezkoa denean.

Edozein sari ordaindu aurretik, Plataformak egiaztatuko du sariak ordaintzea eragozten duen egoerarik ez dagoela, Kontratu honetako baldintzei jarraiki.

SELAEk ez du sariak ordaintzeagatik kudeaketa-gasturik edo zenbatekorik kobratzen.

G) PARTE-HARTZAILEARI PARTE HARTZEKO ESKAINTZEN ZAIZKION MODALITATEEN ETA ZERBITZUEN ZERRENDA, PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Joko Kontratua indarrean dagoen bitartean, Parte-hartzaileak, Erabiltzailearen Erregistroaren bidez, SELAEk eskaintzen dituen apustuak egiteko eta sariak banaka kobratzeko funtzionalitate nagusiaren osagarri diren parte-hartze modalitateak eskuratu ahal izango ditu, deskribaturiko baldintza, prezio eta ordainketa-moduaren arabera. Besteak beste:

- a) Jokaldiak automatikoki errepikatzeko zerbitzuak (“Harpidetzak” eta “Erosketa-eskaerak” Loteri Nazionalen): Plataformak aukera ematen dio Parte-hartzaileari jokaldi bera edo antzeko ezaugarriak dituen beste bat automatikoki errepikatzeko, etorkizunean egingo diren zozketetarako (aurrerantzean, “Harpidetza jokaldiak”). Parte-hartzaileari uneoro jakinaraziko zaizkio errepikapen-kopurua nahiz jokaldi bakoitzaren prezio unitarioa. Harpidetzako Jokaldiak gero sortzeari dagokionez, zerbitzua modu automatizatuan eta ahalegin hobean ematen da, irabazteko bermerik gabe, eta baldintza hauek bete beharko dira: Plataforman harpidetza eginez apustu bakoitza formalizatzeko aukera teknikoak, zozketa bakoitzerako eskaintzaren erabilgarritasunaren arabera adierazitako ezaugarriekin apustua egiteko aukera, zozketa-mota eta Erabiltzailearen Erregistroaren edo Joko Kontuaren gainean inolako eragozpen praktiko edo legalik ez izatea; hala nola, jokaldia ordaintzeko behar adinako krediturik ez izatea. Nolanahi ere, arrakastaz errepikatutako jokaldi bat berehala erregistratuko da Joko Kontuan, eta bertan agertuko da edozein joko-transakzioarako ezarritako aldietan. Parte-hartzailearen erantzukizuna izango da harpidetzaren bidez jokaldiak sortzearen emaitzaz ziurtatzea, eta ondoren ezin izango da erreklamaziorik egin Parte-hartzaileak aldeztu aurretik bere

Joko Kontua kontsultatu gabe egindako edozein ekintzarengatik. Hala ere, Operadoreak modu automatizatuan eta ahalegin hobeko moduan jakinaraziko dio Parte-hartzaileari harpidetza bidezko jokaldiak behar bezala sortu dituela. Jokaldiak automatikoki errepikatzeko zerbitzu osoa doan ematen da, eta azkenean sortzen diren jokaldiak bakarrik ordaintzen dira, eta inoiz ez Plataforman behar bezala gauzatu aurretik.

- b) Ohiko edo gogoko jokaldiak kudeatzeko laguntza-zerbitzuak ("Apustu gogokoenak"): Plataformak hainbat funtzionalitate ditu Parte-hartzailearen ohiko jokaldiak edo jokaldi gogokoenak salbatzea, kudeatzea, sariak egiaztatzea eta ondoren berrerabiltzea errazteko. Funtzionalitate horiek direla-eta, SELAEk ez dio inolako kargu edo betebeharririk gehigarriarik sortuko Parte-hartzaileari.
- c) Taldeak kudeatzeko eta hainbat parte-hartzailearen artean apustuak egiteko zerbitzuak: Plataformak hainbat funtzionalitate izan ditzake taldeak kudeatu ahal izateko, Plataforman zenbait Parte-hartzailek taldean jokaturako apustuak sortu eta kudeatzeko, sari elkartu potentzialak banatzeko helburuarekin.
- d) Laguntza bidezko kargaren zerbitzuak: aukerako zerbitzu honek Parte-hartzaile bati aukera ematen dio Lotobolsa kargatzeko, aurretik erabilitako ordainbide bat erabiliz. SELAEk horren erreferentzia bat gordetzen du, baina inola ere ez bitartekoaren datuak, ordainketaren zerbitzuaren hornitzaileak soilik kudeatzen baititu.

Funtzionalitate horiek direla-eta, SELAEk ez dio inolako kargu edo betebeharririk sortuko Parte-hartzaileari.

H) PARTE-HARTZAILEARI INFORMAZIOA EMATEKO ESKAINITAKO ZERBITZU OSAGARRIAK, PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzuari dagozkion oinarritzko komunikazioez gain, SELAEk informazio- eta komunikazio-zerbitzu gehigarriak eskainiko ditu, eta Parte-hartzaileak bere borondatez aktibatu edo desaktibatu ahal izango ditu horiek.

Jakinarazpen horietako batek ere ez dio kostu ekonomikorik edo betebeharririk ekarriko Parte-hartzaileari.

Emandako informazioak ez du balio ofizialik.

Komunikazio horiek hainbat kanalen bidez bidali ahal izango dira; hots, SMSak, posta elektronikoa edo Operadoreak ezar ditzakeen beste modalitate batzuk (hala nola, push jakinarazpenak app edo nabigatzaile bidez). Ez dira bidaliko eta ez dira eskuragarri egongo aplikatzeko joko-araudiaren arabera jaso ezin dituztenentzat (adibidez, beren burua kanpo utzitakoak).

Komunikazioen zerbitzu gehigarriak:

- a) SELAEren komunikazio komertzialak, egungo jokoei buruzkoak, honako hauek barne: funtzionalitate-aldaketei buruzko aldizkako komunikazioak; jokoan dauden zaku garrantzitsuak; etorkizuneko zozketen eta jokoetako iraganeko zozketen emaitzen buruzko informazioa; albiste-buletina eta Plataformako jokabidearekin lotutako informazio baliagarria.
- b) Plataformako produktu eta zerbitzu berriei buruzko komunikazio komertzialak

- c) SELAEk egiten dituen inkestetan parte hartzeko gonbidapenak, batez ere zerbitzu eta produktuen eskaintza eta Erabiltzaileak Plataforman eta joko presentzialetan duen nabigazio-esperientzia hobetzeko informazioa biltzearen.

I) PARTE-HARTZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Joko Kontratua indarrean den bitartean, Parte-hartzaileak honako eskubide hauek izango ditu:

- a) Parte hartu nahi duen jokoaren arauari buruzko informazio argia eta egiazkoa lortzea.
- b) Legozkiokeen sariak kobratzea ezarritako epean eta denboran, joko bakoitzaren araudi espezifikaren eta SELAren online jokoaren araudiaren arabera.
- c) Sariak ordaintzeko, haren titulartasuneko banku-kontua jakinaraztea/deklaraztea, hala badagokio.
- d) JAZNren aurrean aurkeztea Operadorearen erabakien aurkako erreklamazioak, haren interesei eragiteagatik.
- e) SELAEk joko-saioko jokoak merkaturatzen dituenean, partidaren prezioari dagokion erabilera-denbora erabiltzea.
- f) Askatasunez jokatzeko, Operadorearen, beste jokalaririk batzuen edo beste hirugarren baten hertsapenik edo mehatxurik gabe.
- g) Jokaturako edo apustu egindako zenbatekoa edozein unetan jakitea eta, Operadorean Joko Kontu bat irekita izanez gero, bertako saldoa ezagutzea.
- h) Modu seguruan identifikatzea, Operadoreak horretarako erabakitako prozeduren arabera.
- i) Operadorearen identitatea uneoro ezagutzea.
- j) Jokoaren praktika arduratsuari eta seguruari buruzko informazioa jasotzea.

Joko Kontratua indarrean den bitartean, Parte-hartzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Jokoen ohiko garapena ez aldatzea.
- b) Zintzotasunean, fede onean eta errespetuan oinarritutako portaerak izatea beste Parte-hartzaileekiko eta Jokoaren Operadorearekiko, eta Operadoreak eskura jarritako funtzionalitateak ez erabiltzea SELAren jokoetan pertsonalki parte hartzea ez den beste helburu batzuetarako.
- c) Parte-hartzaileei dagokienez, jokoen erregelamenduan ezartzen diren arauak eta Joko Kontratuan zehaztutakoa betetzea.
- d) Plataforman bakarrik erabiltzeko kredentzial sendo bat hautatzea eta arretaz zaintzea. Erabiltzaile Erregistroaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea edo erraztea.
- e) Beste jokalaririk batzuen Joko Kontuetara transferentziarik ez egitea eta Parte-hartzailearen titulartasuna ez duten ordainketa-bideak ez erabiltzea.
- f) Erregistratutako erabiltzaile gisa baja ematea eta jokoetan berriro ez parte hartzea, baldin eta jokoa buruzko legerian aurreikusitako debeku subjektiboren batean eroriz gero edo hautagarritasun-baldintzen bat betetzei utziz gero.
- g) Eskatutako informazio eta dokumentazio guztia SELAren eskura jartzea, Parte-

hartzaileei dagokienean (bezeroaren ezagutza), egiaztatzeko eta behar bezalako arduraren legezko betebeharrak bete ahal izateko.

- h) Joko Arduratsu/Seguruaren eta Jokoan Iruzurra Prebenitzearen inguruko politikak ezagutzea eta errespetatzea eta SELAEk gai horren aldetik egindako eskaerak betetzea.
- i) Espainian fisikoki kokatuta egotea Lotobolsan erregistratzeko, apustuak egiteko, harpidetzak sortzeko edo diru-sarrerak egiteko.
- j) Joko Kontratua garatzeko Operadoreari emandako informazioa behar bezala eguneratuta mantentzea, Erabiltzailearen Erregistroaren, kontu korrontearen edo lotutako saltokiaren datuak barne (azken hori erregistratzeko unean eskatu bada). Bestela, Parte-hartzaileak Plataformako erabilera-funtzioak mugatuta izan ditzake edo Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetu daitezke.
- k) Haren titulartasuneko banku-kontua eguneratuta izatea, hala badagokio, sariak ordaintzeko eta Lotobolsatik saldoa deskargatzeko.

J) OPERADOREAREN BETEBEHARRAK, ERANTZUKIZUNA ETA ESKUBIDEAK

Joko Kontratua indarrean den bitartean, Operadoreak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Parte-hartzailearen eskura jartzea Kontratu honen kopia bat Erabiltzailearen Erregistroaren bitartez; baita, Kontratuak izan ditzakeen aldaketak eta horiek formalizatzeko eta harreman juridikoa geroago garatzeko berariazko onarpen mekanismo zehatzak ere.
- b) Joko Kontratua sei urteko epean gordetzea, Erabiltzailearen Erregistroa baliogabetzen denetik.
- c) Joko Kontuari dagokionean, mugimenduen eta egindako jokaldien xehetasun analitikoa gordetzea sei urteko denboraldian.
- d) Parte-hartzailearen identitatea, jokoan parte hartzeko debeku subjektiborik ez izatea eta Joko Kontua behar bezala erabiltzea egiaztatzea aldizka, eta, horren berri izan bezain laster, erabileran ikusitako urraketen edo anomalien berri ematea dagokien agintariei.
- e) Joko Kontuan erregistratzea, kargu eta abonuen bidez, eragiketa guztiak, horien identifikazio-elementu osoak eta, bereziki, jokaldiei, irabaziei, itzulketei, diru-sarrerei, ateratzeei edo jasotako bonusei buruzkoak barne.
- f) Sariak ordaintzeko, jokoaren arau berezietan ezarritako prozedura eta ordainbideak jarraitzea, Parte-hartzailea jokoetan parte hartzeko debeku subjektiboren batean edo indarrean den araudian jasotako beste edozein egoeratan aurkitzen denean izan ezik.
- g) Parte-hartzaileak Joko Kontuan gordailututako zenbatekoak jokoen garapen arruntaz besteko helburuetarako ez erabiltzea.
- h) Parte-hartzaileek joko arduratsu/seguruarekin bateraezinak diren jokabideak edota arrisku-jokabideak ez dituztela hartzen egiaztatzea, SELAEk edo indarrean dagoen legeriak ezarritako ereduak eta politikei erreparatuta, eta, horrelako jokabideak detektatzen badira, Parte-hartzaileari behar bezalako informazioa ematea.
- i) Joko arduratsua edo segurua sustatzeko araudiak, Jokoan Iruzurra Prebenitzeko araudiak, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzeko prebenitzeko araudiak edo, oro har, Iruzzarri aurre hartzeko araudiak ezarritako beste ekintza guztiak egitea.

Joko Kontratua indarrean den bitartean, Operadoreak honako eskubide hauek izango ditu:

- a) E) atalean aurreikusitako edozein etete-kasutan aurkitzen den Parte-hartzailea kautelaz etetea.
- b) E) atalean aurreikusitako edozein baliogabetze-kasutan aurkitzen den Parte-hartzailea behin betiko baliogabetzea.
- c) Kontratu honetan deskribatzen diren ekintza guztiak eta Kontratua betetzea ziurtatzeko beharrezkoak direnak egitea.

K) OPERADOREAK JOKO-KONTRATUA AMAITZEA

Operadoreak honako kasu hauetan amaitu ahal izango du Joko Kontratua:

- Erabiltzailearen Erregistroa eta dagokion Joko Kontua baliogabetzeko arrazoiren bat egotea.
- Aurreikusitako eta Operadoreak jakinarazitako arrazoizko epean, Parte-hartzailearen berariazko baimenik ez izatea kontratu-harremana aldatzeko, kontratuaren alde bakarreko aldaketa-kasuan edo Operadorearen berritze subjektiboaren kasuan.
- Operadoreak joko-jarduera gauzatzeko baimentzen duten titulu gaitzaileak galtzea.

Joko Kontratua iraungitzeak honako hau dakar:

- Egiteke egon litezkeen eragiketa guztien legezko likidazioa, jokokoenak zein transakzio ekonomikoenak, Operadoreak ahalmena galdu gabe sariak ordaintzea edo Joko Kontuko zenbatekoak deskargatzea ukatzeko, Kontratua amaitzeko arrazoiaren arabera bidezkoa bada.
- Parte-hartzailearen Erabiltzailearen Erregistroa eta Joko Kontua baliogabetzea Kontratuan ezarritako baldintzetan.

Joko Kontratua amaitzea erabaki ahal izango du SELAEk, alderdien interesak defendatzeko zuzenbidean bidezkoak izan daitezkeen beste ekintza batzuk alde batera utzi gabe; esate baterako, kalte-galerak erreklamatzeko.

L) JOKO-KONTRATUAREN ERAGINKORTASUNA ETA IRAUPENA

Kontratu hau indarrean sartuko da Parte-hartzaileak berariaz onartzen duen unetik aurrera, dagokion laukia markatuta. Kontratuaren indarraldia mugagabea da, aurreko atalean adierazitako kausaren batengatik amaitzen ez den bitartean.

Kontratuaren edukia Operadoreak aldebakarrez aldatzen badu edo horren berritasun subjektiboa gertatzen bada, Kontratu berriak aurrekoa ordezkatzeko du Parte-hartzaileak kontratu-harremanari eustea berariaz baimenduz gero, Operadoreak horretarako emandako bitartekoaren bidez. Parte-hartzaileak baimenik eman ezean, Kontratua amaitu egingo da, Operadoreak kontratua suntsiarazteko ahalmena erabiltzen badu. Operadoreak Parte-hartzaileari jakinaraziko dio zer epe izango duen adostasuna adierazteko Plataformaren funtzionalitate guztiak edo batzuk iraungitzeko edo eteteko egoerara iritsi arte.

M) HARREMANETARAKO BITARTEKOAK. BEZEROARENTZAZKO ARRETA-ZERBITZUA

SELAEk Parte-hartzailearen eskura jartzen ditu harremanetan jartzeko hainbat bide honako hauen inguruko kontsultak egiteko: Plataforma, Erabiltzailearen Erregistroa (pasahitza galtzea, lapurtzea edo baimenik gabe erabiltzea, Erabiltzaile Erregistroa baliogabetzea, Datu Pertsonalak zuzentzea, zerbitzu gehigarrietan edo baimenetan lehentasunak aldatzea, eta abar), online apustuak edo sariak nahiz SELAEekin edo Kontratu honekin lotutako edozein kontsulta, eta kexak eta erreklamazioak aurkezteko ere bai. Parte-hartzaileek harremanetan jartzeko bitarteko hauek dituzte kontsulta orokorrak egiteko:

- Harremanetarako inprimakia www.loteriasypuestas.es web gunean, erabiltzaileek behar bezala identifika dezaketena eta jaso den eguna eta ordua jasotzen dituen.
- Telefono deia zenbaki hauetara: 900 11 23 13 / 902 11 23 13 / 91 596 23 00.

N) DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Kontratu honen xedea betetzeak berekin dakar SELAEk Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak tratatzea. SELAEk adierazten du zorrotz errespetatzen duela pertsonak beren datu pertsonalen tratamenduaren inguruan duten funtsezko eskubidea eta zorrotz betetzen duela datuak babestearen araudian xedatutakoa:

- EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa – DBEO-.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa –DBEDBLO-.
- Eta aplikatu beharreko garapen-araudia.

Kontratu hau onartzearekin, datu pertsonalen informazioaren irakurketa eta ulermena aitortzen da. Gardentasuna izate aldera, jarraian Oinarrizko Informazioa agertzen da, geruzen teknika erabiliz:

<i>I. Geruza</i>	
<i>Epigrafea</i>	<i>Oinarrizko informazioa</i>
<i>Arduraduna</i>	Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.M.E., SA (SELAE).
<i>Helburuak</i>	SELAEk Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak tratatuko ditu SELAEn Jokoen Plataforma Digitalarekin lotutako zerbitzuak emateko, bertan eskaintzen diren jokoen eta aukerako hainbat zerbitzu boluntarioren (kostu bidezkoak eta/edo irabazizkoak) komertzializazioan parte hartzeko. Horrek berekin dakar SELAEko jokoetan parte hartzearen kudeaketa operatiboa, teknikoa, komertziala eta legala, Plataformaren erabilerari lotutako alderdiekin, jokoak eskaintzeko legez gaitutako merkataritza-enpresa baten behar eta betebeharrak operatibo eta legalei dagozkien jardura guztiak barne.
<i>Hartzaileak</i>	Datuak soilik lagako dira kontratu-harremanaren beharrengatik (finantza-erakundeak, eta modu oso mugatu eta puntualean ikuskatzaileak) eta legezko betebeharrengatik. Ez da Datu Pertsonalen nazioarteko transferentziarik egiten.
<i>Legitimazioa</i>	Negozio-harremana, lege-oinarria, adostasuna eta interes legitimoa.

Eskubidea	<i>Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze</i> ko eskubidea du eta baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen den moduan.
Jatorria	<i>Datu gehienak interesatuaren eskutik datoz zuzenean. Beste aldea:</i> JAZN, Parte-hartzailearen erregistroaren bideragarritasunaren eta jokatzeko gaitasunaren aldetik. <i>Interesatuaren finantza-erakundeak eta ordaintzeko moduak.</i> <i>Plataforma eta jokoak erabiltzearen emaitza.</i>
Informazio osagarria	Datuak Babesteari buruzko informazio osagarria eta xehatua (II. Geruza) kontsulta dezakezu <u>esteka</u> honetan: <u>https://www.loteriasypuestas.es/loterias/centro_de_ayuda/Politica_Privacidad_Participantes.pdf</u>

O) APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Kontratu hau Espainiako legediak arautzen du. Joko Kontratu honen bitartez Parte-hartzailearen eta Operadorearen artean formalizatutako harremana harreman pribatua da, eta, beraz, haien artean sor daitezkeen gatazkak eta eztabaidak jurisdikzio-ordena zibileko Espainiako Epaitegi eta Auzitegien mende egongo dira, JAZNk bere eskumenen esparruan erabiltzen duen zehatzeko ahalmena alde batera utzi gabe.

Aurrekoa horrela izanik ere, Parte-hartzaileak ahalmena izango du gatazkak konpontzeko dauden legezeko eta kontratuko bideetako batera jotzeko, Operadorearen erabakien aurrean bere eskubide eta interes legitimoak babesteko. Zehazki, Parte-hartzaileak bere helbidearen arabera eskumeneko jurisdikziora jo ahal izango du. Halaber, Kontratu honetatik eratorritako kontratu-betebeharrei buruzko edozein erreklamazio egin ahal izango du zuzenean Operadorearen aurrean jarrita eta behar bezala ebatzi gabea, auziak konpontzeko lineako auziak ebazteko Europako plataformaren (RLL) bidez. Prozedura hori hemen eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/consumers/odr/main/>.

P) OROKORRA

i) Operadorearen erantzukizuna:

SELAEk ez du bere gain hartuko Plataformaren bidez edo hango edukien bidez eskainitako zerbitzuak erabiltzetik zuzenean edo zeharka eratorritako kalte edo galeren erantzukizunik, sistema informatikoei eragindako kalteak barne, tartean aplikazio kaltegarriak sartzea, birus moduan edo beste modu batzuetan. Era berean, SELAE ez da Plataformaren sarbidean, funtzionamenduan eta operatibitatean, edo zerbitzu eta/edo edukietan gertatzen diren atzerapen edo akatsen erantzule izango, ezta Plataformaren etenaldien, eteteen edo funtzionamendu txarraren erantzule ere, matxura horiek hondamendi naturalek edo ezinbesteko edo muturreko premiazko egoerek eragin badituzte; hala nola, grebak, erasoak edo intrusio informatikoak edo ezinbesteko edo ustekabeko beste edozein egoera.

ii) Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak:

Plataformaren bidez eskainitako eduki eta zerbitzu guztiak —testuak, informazioa, datuak, softwarea, zeinu bereizgarriak, markak, izen komertzialak, multimedia edukiak, grafikoak, irudiak, animazioak, musika-sorkuntzak, bideoak, soinuak, marrazkiak, argazkiak, iruzkin guztiak, erakusketak eta bertako html kodea eta Plataformako beste eduki batzuk, zerrenda hori mugatu gabe (aurrerantzean, “Plataformako edukiak”)— SELAEn edo bere lizentziadunen jabetzakoak dira, horietatik eratorritako jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak barne.

Debekatuta dago Parte-hartzaileak Plataformaren, Plataformaren Edukien edo horien zati baten erabilera, erreprodukzioa, transmisioa, eraldaketa, banaketa, komunikazioa edo ustiapena egitea edozein modutan, ondorengo paragrafoan ezarritakoaren arabera izan ezik.

SELAEk lizentzia mugatua eta ez eskusiboa ematen die Parte-hartzaileei, Kontratuak irauten duen bitartean; lizentzia horren azpi-lizentziarik ezin da eman, ezin da transferitu Plataforma eta Plataformaren Edukiak erabiltzeko, Plataforman eskainitako zerbitzuak erabiltzeko modu oso zorrotzean. Parte-hartzaileak inola ere ezingo ditu erabili Plataformaren zerbitzuak edo Plataformaren Edukiak, erabilera soilik pertsonala ez bada, behar izanez gero, aurreikusitako salbuespenak salbuespen.

Era berean, Parte-hartzaileek ezin izango dute Plataforman instalatuta egon daitekeen edozein babes-gailu edo segurtasun-sistema ezabatu, aldatu, saihestu edota manipulatu.

Parte-hartzaileek aitortzen eta onartzen dute Plataforma eta Plataformako Edukiak erabiltzeak ez duela esan nahi Plataformaren edo Plataformako Edukien gaineko jabetza intelektual edo industrialeko eskubiderik beren alde lagako denik, ezta Plataformatik edo Plataformako Edukietatik eratorritako garapenak sortzeko inolako baimenik ere, Parte-hartzaileei Plataforma eta Plataformako Edukiak atal honetan aurreikusitako baldintzetan erabiltzeko ematen zaien erabilera mugatuko lizentziagatik izan ezik.

Bestalde, Parte-hartzaileek SELAEri ematen diote, hala badagokio, izaera pertsonalekoak ez diren datuak erabiltzeko eskubidea; eskubide hori ez da eskusiboa, baina bai mugagabea, osoa, besterenezina eta doakoa, eta azpi-lizentzia behar dezake. Bereziki datu teknikoak izango dira edota erreferentzia pertsonala duten eta ezabatu zaien datuak (datu anonimizatuak).

iii) Hizkuntza

Joko Kontratu hau gaztelaniaz idatzita eta sinatuta dago. Beste hizkuntza batera egindako itzulpenek informazio-balioa soilik izango dute, eta, nolanahi ere, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

iv) Kontratuaren osotasuna

Kontratu honetako klausula bat erabat deusez edo eraginkortasunik gabekotzat jotzen bada, alderdiek Kontratuaren osotasuna onartzen dute, eta, beraz, klausula hori edo klausularen zati hori baino ez da baliogabea edo ez eraginkorra izango. Klausula hori jarri gabekotzat joko da, eta gainerako klausulek bere horretan jarraituko dute. Egoera horrek ez dio Kontratuaren balioari eragingo, eta ez du alderdien arteko harreman juridikoa iraungiko. Aurrekoa, baldin eta Kontratuaren funtsezko zati bati eragiten ez badio eta zati hori kentzeak alderdien arteko elkarrekiko prestazioen orekan murrizketa nabarmena ekar badezake.

v) Joko Kontratua onartzea:

Parte-hartzaileak nahikotzat jotzen du, eta Plataforman jasotako informazioa ezagutzen eta ulertzen du, eskainitako zerbitzuen deskribapena, Plataforma erabiltzeko baldintzak eta Joko Kontratu hau barne, kontratu aurreko informazio gisa eskuratu duena. Parte-hartzaileak onartzen du bere erabakia eskuratu duen informazioan oinarritzen dela. Parte-hartzaileak, dagokion laukitxoak markatuta, Joko Kontratu honen edukia erabat eta inolako eragozpenik gabe onartzen du.